



xapio

2007ko apirila - 6. alea

Goizuetako
aldizkaria

Goizuetan bizi nahi?



ale honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udalaren
euskara zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
Allende Arnaiz

• **Laguntzaileak:**
Goizueta, Arano,
Leitza eta Aresoko
Euskara Zerbitzua

Nafarroako Gobernua:

- Hezkuntza eta Kultura Departamentua
- Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



aukibidea

- **4-7.....** UEMA: Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
- **8.....** Zapologia, edo Goizutan bizitzeko arrazoiak
- **9.....** Ezetz Asmatu
- **10-11....** Atzera begira
- **12-13....** Txoko-sex: Onttoak
- **14-17....** Elkarrizketa: Pakita Makazaga, telefonista
- **18-19....** Trabukoren istorioa
- **20-21....** Txoperenatarak, Goizuetako bost Cowboy-ak
- **22-23....** Etxebizitza, guztion eskubidea
- **24-26....** Brasilgo errepublika
- **27.....** Informazio erabilgarria: izen-abizenak euskaratzeko
- **28.....** Zure txanda



Udaberria ailegatu da, eta udaberriarekin batera XAPO. Garai honetan kalera ateratzeko gogo sartzen da gorputzean. Azken egun hauetan opor giroan murgildurik ibili gara, batzuk kanpoan eta besteak Goizuetan bertan. Goizuetako paisaiak irakurtzeko parada ezin hobe ematen digu, goxo-goxo eguzkipean edo haritzek ematen diguten itzalpean. Euria ere izan dugu, behar-beharrezkoa.

Xapo aldizkariaren seigarren alea duzu eskutan, irakurle. Jadunik 5 zenbaki argitaratu ditugu eta horretan jarraitzeko asmo sendoa dugu. Izan ere, Xaporen lehendabiziko aleak eta hurrengoak harrera ona izan zuela iruditu zitzaigun eta aurrera egitea erabaki genuen.

Ale honetan ere, aurrekoan bezala, Goizueta da gai nagusia. Goizuetan

eta goizuetarrentzat egindako aldizkaria baita Xapo. Badakizuen ez aldizkari hau Goizuetako Kultur Taldeak prestatu eta argitaratzen du, euskara zerbitzuaren laguntzarekin.

Xaporen zenbaki honetan, bi erreportaje nabarmendu izan nahi ditugu. Alde batetik UEMAren ingurukoa eta bestetik, Goizuetarren etorkizunaren ingurukoa (Goizuetaren Zapologia).

Eta, bestalde, Xapoko zenbaki honetan zer? Bada, ohi bezala, denetik pixka bat. Elkarrizketak (Pakita telefonista), artikulak (etxebizitzaren ingurukoak), istorio dibertigarriak eta, orrialde dezente hartuta, Goizuetako argazkiak, atzokoak eta gaurkoak (haiek bai gariak).

Gai interesgarri asko, ezta? Baina batzuetan ideiak eta gaiak agortu egiten dira. Zorionez, ez zaigu irudi-

tzen hala gertatuko denik; aitzitik, uste dugu hurrengo urtetan izanen dugula zer kontatua, eta, zorte pixka batekin, ekimen eta lan eder eta emankorren berri ematen jarraitu ahalko dugula. Hala ere, badakizue XAPO aldizkari irekia dela, eta ekarpenak oso gustura hartuko genituzke. Ziur gaude herrian badirela mila kontu jakingarri, denon interesekoak, eta Goizueta hobeki ezagutzen lagunduko digutenak. Horientzako tokia badago aldizkari honetan, eta horientzako toki aproposa dela uste dugu, gainera. Beraz, zer kontatua duzuen guztiak, anima zaitezte eta ekar itzazue zuen lantxoak edo ideiak gure aldizkarira. Denok estimatuko dugu!

Besterik gabe, aldizkaria zabaldu eta gozatua har dezazuen espero dugu, horretarakoxe egin baitugu.





UEMA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

Gune euskaldunetan euskaren erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal euskaldun guztiekin euskara nagusi izango den lur-gunea antolatzeke asmoz, jarri zen martxan 1991n Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.

Mankomunitate honen eginkizuna garrantzi handikoa da euskararen normalizazio prozesuan. Euskarak, biziko bada, berez nagusi den lur-gunea behar du, eta hori nolabait gauzatu litzateke udalerri euskaldunak batuko balira. Horrek euskararen hizkuntza komunitate osoari egiten dio mesede. Egun, Euskal Herrian egoera minorizatuan badago ere, udalerri euskaldunetan euskara da nagusi

si eguneroko harreman arruntetan behintzat.

Udalerri euskaldunetan 200.000tik gora euskaldun bizi da eta hizkuntza planifikazio aurrerakoia egin daiteke udal euskaldunetan, normalizazio bidea erdaldunetan baino errazago delako. Izan ere, udal euskaldunetako berezko euskal sareak (familia, laguntaria, eskola, administrazioa, gizar-zerbitzuak, lan mundua...) erraztu eta ahalbideratu egiten baitute euskararen erabilera.

UEMAko herriak: ezaugarriak

Gaur egun, hego Euskal Herriko lau

herrialdeetako 51 udalerri biltzen ditu mankomunitateak. Baina ipar Euskal Herriko Konfederazioarekin ahalbideratutako lanari esker, hango hainbat eta hainbat udalerri ere, batik bat Herriko etxeetan euskararen erabilera normalizatzeko urratsak ematen ari dira.

UEMAk biltzen dituen herriak ezberdinak dira ezaugarri batzuei dagokienez. Batzuk oso txikiak, beste batzuk handiagoak, batzuk euskara zerbitzuarekin, beste batzuk zerbitzu hori gabe... Baina finean, denek dituzte ezaugarri komun batzuk ere. Jarraian, gaur egun UEMA osatzen duten udalerrien ezaugarrien taula ikus daiteke:

Euskal Herriko II.SMS lehiaketa

www.smsariketa.org



gaia:
**esaiozu
ezetz**



Parte hartzeko

www.smsariketa.org
edo bidali sms bat
5649 zenbakira
uema.sms2.(mezua)



Ekainaren
**1etik
30era**



Antolatzailea



Laguntzaileak



Kizkurak
kizkur
3 pauso
errazetan



Gizonezkoentzako
zimurren kontrako
krema



Asteko
eskaintza
Xanpua
xx



Xanpua erosita,
txankleta hauek opari



Hortzetako eskuilak:
2 ordaindu
eta
3 eraman



Ezkontzetan
banatzeko opariak
prestatzen ditugu



HERRIA	BIZTALEAK	EUSKALDUN KOPURUA	EUSKARA ZERBITZUA	BARNE PLANA	PLAN OROKORRA
Aizarnazabal	532	%98,07	Ez	2000	Ez
Altzaga	133	%97,83	Ez	2000	Ez
Arama	166	%93,55	Ez	2003	Ez
Antzuola	1.911	%79,07	ET bat (egun erdiz)	2003	Ez
Beizama	157	%100	Ez	2000	Ez
Ezkio-Itsaso	537	%94,63	Ez	2001	Ez
Gaintza	136	%98,50	Ez	2001	Ez
Getaria	2.504	%95,83	ET bat	2003	EBPN
Itsasondo	564	%86,99	Ez	2000	Beste bat
Orio	4.510	%87,59	ET bat	2003	EBPN
Usurbil	5.324	%76,1	ET bat eta itzultzailea	2000	EBPN
Zaldibia	1.518	%90,84	Ez	2001	Ez
Zestoa	3.101	%90	ET bat	2000	EBPN
OREXA	82	%98,08	EZ	2000	TEPE
BALIARRAIN	97	%99,49	EZ	2000	TEPE
ORENDAIN	154	%99,35	EZ	2000	TEPE
ELDUAIN	215	%98,91	EZ	2000	TEPE
BELAUNTZA	296	%92,02	EZ	2001	TEPE
ALTZO	320	%96,40	EZ	2000	TEPE
ADUNA	336	%93,79	EZ	2001	TEPE
LEABURU-TXARAMA	373	%94,27	EZ	2000	TEPE
IKAZTEGIETA	386	%92,08	EZ	2000	TEPE
LIZARTZA	584	%98,48	EZ	2000	TEPE
IRURA	955	%84,13	Teknikari bat 2/5	2001	TEPE
ANOETA	1.778	%78,56	Teknikari bat 3/5	2001	TEPE
OIARTZUN	9.549	%82,44	Teknikari bat	2001	EBPN
AJANGIZ	434	%93,66	Ez	2001	Ez
AMOROTO	376	%94,55	Ez	2001	Ez
ARAMAIO	1.466	%87,21	Teknikari bat	2002	EBPN
ARRATZU	368	%95,79	Ez	2001/2002	Ez
ARTEA	644	%87,11	Ez	2000	Ez
AULESTI	649	%95,15	Ez	2001	Ez
BERMEO	16.938	%81,39	4 Teknikari	2001	EBPN
BERRIATUA	987	%92,91	Ez	2004	Ez
DIMA	1.052	%90,35	Ez	2000	Ez
ETXEBARRIA	796	%94,74	Ez	2001	Ez
GATIKA	1.295	%82,08	Ez	2000	Ez
GIZABURUAGA	144	%94,79	Ez	2001	Ez
MENDEXA	341	%91,50	Ez	2000	Ez
MUNITIBAR	390	%95,26	Ez	2001	Ez
MUTRIKU	4.775	%88,48	Teknikari bat	2000	Ez
MUXIKA	1.320	%93,83	Ez	2004	Ez
ONDARROA	9.732	%86,18	Teknikari bat	2001	EBPN
ZEANURI	1.143	%90,24	Ez	2000	Ez
ARANTZA	675	%99,2	Mankomunitateko ET	2000	
ARBIZU	925	%93,41	Mankomunitateko ET	2001	
ETXARRI-ARANATZ	2.392	%85,67	Mankomunitateko ET	2001	
GOIZUETA	851	%97,04	Mankomunitateko ET	2000	
LEITZA	2.935	%92,15	Mankomunitateko ET	2000	
URDIAIN	675	%88,65	Mankomunitateko ET	2001	
ZUBIETA	297	%99	Mankomunitateko ET	2000	

Esan bezala, ezaugarri batzuk ezberdinak izan arren, herri guztiek badute oso antzekoa den ezaugarri bat: euskaldun kopurua. UEMAn biltzen diren herriak udalerri euskaldunak dira, hango biztanleen %75etik gora euskalduna izanik. Gainera, herri txiki gehienak, normalean euskaldun indizerik handienak dituztenak, euskararen erabateko normalizazioan aritzeko teknikaririk gabeak dira. Ondorioz, bide horretan eman dituzten urrats gehientsuenak UEMATik bul-tzatutakoak izan dira.


UEMA osatzen duten udalerriak Euskal Herriko gune euskaldunenak dira. Udalerri euskaldunen eginkizuna garrantzi handikoa da euskarak bizirik jarrai dezan. Udalerri euskaldunenetan euskara da nagusi, eguneko harreman arruntetan, behintzat. Izan ere, udal euskaldunetan berezko euskal sareek (familia, lagunartea, eskola, administrazioa, gizarte-zerbitzuak...) erraztu egiten baitute euskararen erabilera. Gune hauetan, euskara, eragin arrotzik gabe, jator mantentzen da.

UEMAren jardunak eta kanpainak

UEMAko teknikarien foroa. Herri horietan euskararen normalizazioan ari garen teknikariok, baditugu hainbat eta hainbat kezka bateragarri. Finean, antzeko gauzek kezkatzen gaituzte denok, eta kezka horien irtenbideak ere, askotan, komunak dira. Horregatik sortu da foroa; elkar lagun-tzeko, informazioa trukatzeko eta egitasmo zabalak garatzeko.

• **Kultur Elejira.** UEMAn dauden udalendako zirkuitu kulturala da. UEMAk udalei kultur ekitaldiak antolatzeko diru laguntza ematen die.

• **SMS lehiaketa.** Betidanik izan da UEMArekin helburuetako bat euskararen etorkizuna diren gazteen arloari ere heltzea. Bide horretatik, gazteen hizkuntza ohituretan, kalitatean... urratsak eman nahian, SMS lehiaketa antolatu zuten. Hizkuntzarekin jolas egiteko aukera bat izan da, baina kontua ez da hizkuntza berria asmatzea, gurearekin jolasean hitz, esamolde, argot berriak sortzea baizik. Izan ere, hizkuntza berriz asmatzea



eta berriz eratzea gure eskubidea baita. Aurten bidarren edizioa egin da, eta parte hartzea oso handia izan da. Leitzako gazte dexentek ere parte hartu du lehiaketan. Lehiaketaren euskarri nagusia www.smsariketa.org webgunea izan da aurten ere. Baina iaz «gehien maite duzun horri» idatzi zieten guztiek aurten ezezkoak esateko duten abilezia erakutsi beharko dute. Izan ere, «esaiozu ezetz» izan da aurten SMSak idazteko gaia.

• **Osasun Zerbitzuak** euskalduntzeko kanpaina Osasungintzan ere euskaldunon hizkuntza eskubideen defentsa eta aldarrikapena egitea izan zen asmoa. Kexa asko bideratu ziren.

• **Merkataritza kanpaina.** Era guztietako kartzelak egiten dituzte: oharrrak, ordutegia, menuak...euskaratu, zabalik/itxita txartelak banatu...

• **Arlo bakoitzetako hiztegi plastifikatuak.** Auten hainbat hiztegi egin dituzte: harategiak, ileapaindegiak eta txokoak.

HARATEGIETARAKO HIZTEGIA

OKELA/HARAGIA

BARRUKIAK

JATEKOAK

TRESNERIA

KORTXOLIS ELKARTE GASTRONOMIKOA

28/09/05 Legea betez, Hemen EZIN DA erre

kerik gabeko gune

GUZTIRA 11,35 €

Miren Segurola UEMAko teknikaria

• Zer da UEMA? Zein da helburu nagusia?

UEMA udalerri euskaldunetz osatutako mankomunitatea da. Helburu nagusia da udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izatea lortzea eta udalerri euskaldun horiek guztiak batera, euskara nagusi izango den lurgunea osatzea.

UEMAk erdarek betetzen dituzten funtzio guztiak euskararako bereganatzea bilatzen du, hots, gaztelania eta frantsesa ezinbestekoak ez izatea normaltasun osoz bizi ahal izateko.

• UEMAko herria izateko zein baldintza bete behar dira?

Bete beharreko baldintza bakarra herritarren %70a baino gehiago euskalduna izatea da. UEMAREN helbu-

rua euskaraz funtzionatzea izanik, beharrezkoa ikusten da herritarren gehiengo zabal bat euskalduna izatea. Hortik aurrera, udalak euskararen aldeko jarrera aktiboa hartzeko konpromisoa hartzea baino ez da. Udaletik bertatik hasita euskaraz bizitzea posible dela erakusteko konpromisoa hartzea nahikoa da udalerri euskaldun bat UEMAko partaide egiteko.

• Zein da herriari eskaintzen zaion zerbitzua?

UEMAren zeregin nagusia udalek beraiek euskaraz funtzionatu ahal izateko plangintzak prestatu eta horien jarraipena egitea da. UEMAREN ustez, oso garrantzitsua da euskararen normalizazioan herriko erreferente nagusienetakoa izaten den udala bera eredugarri izatea. Horregatik,

udal bat UEMAn sartu bezain pronto udaleko bertako normalizazio plana egiteko diagnostikoa egin eta ahalik eta epe laburrenean «Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana» onartzen da. Horrez gain, herritarrek egunerokoa euskaraz bizitzea izan ditzaketen oztupoak gainditzeko bideak ere urratzen ditugu: beste administrazio publikoekiko harremanak euskaraz izateko bideak urratu, merkataritzan euskaraz bizitzeko doko zerbitzua eman merkatariei, transmisio kanpainak eta abar.

• Zertan ari da orain UEMA? Aurre-bera begira zer egin behar du?

«Udaletako euskararen erabilera normalizatzeko plana»k egin zirela denbora dezente pasa zela eta, hausnarketa fase bat ireki zen duela pare bat urte. Orduan, nahiz eta erabilera

Miren Segurlo, UEMako teknikaria.



plan horiek guztiak %100ean bete gabe egon, udal bakoitzaren egoera ezberdina zela eta plan horien balorazioak egiten hasteko erabakia hartu genuen. Ordutik, herriz herri plan horiek baloratu eta aurrera begira hartu beharreko neurriak zehazten ari gara nagusiki. Horrez gain, ordea, oraindik jarraitzen dugu merkatariei doako zerbitzua ematen, transmisio kanpaina egiten, Kultur Elejira zerbitzua eskaintzen e.a.

Aurrerantzean, plan horiei jarraitzea egiteaz gain, ditugun beste erronka batzuei heltzeko asmoa ere badugu. Etorkinen gaia adibidez garrantzi handia hartzen ari da, batik bat gureak bezalakoak diren herri euskaldunetan; horri lotuta, iraila aldera horri buruzko mintegi bat antolatzeko asmoa dugu. Merkataritzan ere ematen dugun zerbitzua espezializatzen jarraitu nahi dugu. Gainera, gazteria alorrean urratsak emate aldera, iaztik Euskal Herriko SMS lehiaketa ere antolatzen dugu, eta aurrean izan duen arrakasta ikusita, aurrerantzean ere horrekin jarraitzeko asmoa badugu.

• Zein lan egiten duzu? Zeintzuk dira zure funtzioak?

Nik ohiko euskara teknikari baten antzeko funtzioak betetzen ditut UEMAn. Gaur egun UEMAn dauden 52 herrietarako 4 teknikari eta koordinatzaile bat gaude (2 Gipuzkoako bulegoan eta 3 Bizkaikoan). Teknikari bakoitzak herri batzuk hartzen ditu bere gain, eta nik Gipuzkoako 13 herri eta Nafarroako 6 herri ditut.

Nire funtzioa herri horietako erabilera planak diseinatu eta jarraitzea egiteaz gain, bere herrietan UEMAk ematen dituen zerbitzu guztiak ematea edo ematen direla bermatzea da.

• Noiz hasi zinen UEMAn lan egiten?

2003ko martxoan hasi nintzen UEMAn. Hala ere, euskalgintzan izandako lehen esperientzia Euskal Herrian Euskaraz-en izan nuen herrian, ondoren unibertsitate garaian AEKn aritu nintzen irakasle gisa. 2003an aukera izan nuenetik UEMAn ari naiz lanean, eta esan beharra dut sinesten dudako proiektu batean lan egiteko aukera eman zidatelako oso gustura nagoela.

• Aurrerapausoak egin al dira azken hamarkadan?

Bai, aurrerapausoak egin dira, dudarik gabe. Kontua da egin diren aurrerapausoak ez direla nahikoa inondik inora euskararen normalizazioa lortzeko. Gainera, ez dut uste egin zitekeen guztia egin dugunik ere.

Euskararen normalizazio prozesua indarra hartzen hasi zenean, urte gutxitan aurrerapauso nabarmenak eman ziren, baina gauza askorekin gertatzen den bezala, zenbat eta aurrerago gero eta gehiago kostatzen zaigu pausoak ematen jarraitzea.

Udaletako erabilera planen balorazioak egiten gabiltzan bitartean ere argi ikusten dira hainbat gauza: batetik, aurrerapauso nabarmena eman da udal langileen hizkuntza gaitasunean; gaur egun, UEMako herrietako udal langile gehien gehienak gai dira euren lana euskaraz egiteko. Hala ere, zailtasun nabariak ditugu beste administrazioekin, zerbitzu enprekin... harremanak euskaraz izateko.

Nik uste dut euskarak beste bultzada bat behar duela. Eman ditugun aurrerapausoak asko badira ere, gaur egun alor batzuetan estankatuta gaudela uste dut.

...edo Goizutan bizitzeko arrazoien dekalogo

Apologia, baztertua edo garrantzirik ematen ez zaiona goraipatzeko egiten den goratarrea da, askotan esageratu xamarra. Lur hiztegiara jo dugu definizio zehatzagoaren bila, eta hauxe esan digu: «Gauzen edo pertsonen goratzarrerako edo defentsarako egiten den idatzizko azalpena».

Goizuta bezalako herri ttiki eta «zibilizaziotik» urruti dagon baten bizitzea ez da erraxa, ez da eroso, ez da moderno. Horregatik ariko da hustutzen. Bino, hala ere, bada bertan (ongi) bizi den eta bizi nahi duen jendea. Gauzak, beti, ez baitira ematten dutena. Hori erakusteko, Goizutaren goratarre eta defentsarako «zapologia» hau idatzi dugu. Ea ze iduitzen. Goizuta bihotzen damakiten guzik logelan edo itxeko leku nagusin marko batekin jarri beharrekoa?

1. GOIZUTA, NATURAREN BIHOTZA

Mendia gustatzen zizula? Goizuta herritik pixkot muittuz gero, xelairik bai? Edozin lekutatik abituta, pauso batera 1000 ta 1 ibilaldi, mapatan begira arritu beharrik izan gabe, maila guzitako ibiltarintzat. Hala ere, izter kozkorrak ta ipurdi arina eukitzea hobe!

2. GOIZUTA, KOMUNIKATUA

Goizuta urruti dola? Nondikan? Oiartzunera, Arantzara, Labainera, Leitzara, Berastira... 5 ordu oinez! Ta zenbat eta gehio ibili, ordun ta denbo gutxio (izter kozkorrok, ipurdi arinoa...)!

3. GOIZUTA INKOMUNIKATUA (edo 8)

Bide txarra dula? Negun, horma do elurrakin arriskutsua izan littekela? Lanera ez joteko aitzaki ederra bai!

4. GOIZUTA, ETORKIZUNA

Teknologia berrik ez ttizula matte? Haik gu ezta re Goizutan: ADSL, Kzgune edo ziberkafek urruti xamar gelditzen dia, behintzat, hemendik.

5. GOIZUTA, ANARKISTA

Gaur den egunen, nonahi aparkatzeko lekua harrapatzea zaila dela? TAO jartzetik ezin dela libratu? Goizutan lasai, edozin lekutan dohainik aparkatu ta, gainera, 2 kotxe ezin muittuik uzten battizo re, multik ez.

6. GOIZUTA, BIZILEKU

Etxebizitzak garesti diala? Goizutan nahikoa

itxe huts, «betetzeko» aukeran («okupatu», euskaraz, zuzeno litzake hola, ez?!)

7. GOIZUTA, FIESTA

Oango bizimodukin nazkatua zaudela? Trafikoa, soinua ta zikina... Goizutan urten bitan bakarra: inauteri ta fiestatan.

8. GOIZUTAN, LAN GUTXI (TA ALPER ASKO?)

Birziklatzeko papera, plastikoa, metala, kristala, material organikoa... berextea alperreko lana iduitzen zizula? Goizutan bai behintzat!

9. GOIZUTA ABERTZALE

Herri mugimendua bertatik bertara ezautu nahi zula ? Toz, inork fitxatzeko beldurrik pe, barrikotera! Edo ez, auskalo hemendik aurrera zer pasatuko den «komando-patrulla gartzibilla»kin.

10. GOIZUTA EUSKALTZALE

Manifatako betiko esaldikin nazkatu zala? Herri hontako hizkera aberatsen harrapatuko zo horik ordezkatzeko aukera zabala: «Eees-karpinaak txi-nal-kaaaa!», «Aa-papa-rrutxak puutzuu-luuun!», «Anix-turik gabee, kaa-ferik ez!»... Mingaina (edo eskua, edo burua) pixkot jotzen ai te ziu?

Ikusten duzutenez dekalogo aixa osatu dugu. Beste asko idatzi gabe geldittuzkiula badakigu, orde. Burura batzun batzuk torri izainzkizutela baitare. Ezetz hurrengo Xaporako bial! Irakurle finak bazate, jakingo zute zein den gure helbidea, beste artikulua baten idatzi baitugu gurekin harremanatan jartzeko modua. Eta bukatzeko, beste bat. Hau re Goizuetan izaki...

1 eta 11. GOIZUETA, HORI TA ASKOZ E GEHIO

5 bokal ttun herriik ez duzula ezautzen? Hori re bai, GOIZUETA!!

Jakintsun batek esan omen zun: *Bizitzeko eta aurrera segitzeko beharrezkok, esperantza, loa eta umorea dia*. Ez geldittu lotan, gaztek (ta gaztea ez denak, bota dezala aurreneko harria)!

Gaizki sanak barkatu,
ta ongi sanak goon hartu.

ezetz asmatu

EZETZ ASMATU

Aspaldiko argazkiak dituzu hemen eta, tartean, goizuetar ugari. Egia da urtekin itxura aldatu egiten dela eta janzkerak berak jendea aldatzen duela. Baina horixe da ariketa edo joko honen zailtasuna eta meritua. Helduentzat eta zaharrenentzat errazagoa izanen da, jakina, aspaldiakoak direlako argazkiak, eta gaztetxoentzat zailagoa, ziur asko. Nolanahi ere, aurpegiko ezaugarri batzuk betirako izaten dira eta beste batzuk seme-alabei pasatzen zaizkie; beraz, honen sudurra dela, haren begiak, edo auskalo zeren laguntzaz, ea asmatzen duzuen argazkietako jendea zein den.

PERTSONAIA EZKUTUA

Nor ote da? Ezagutu al duzu? Ez? Lehendabiziko begi kolpean ez duzula asmatu? Lasai, argazkian agertzen denak berak ere ez du asmatu-eta! Zoritzarrez, ariketa honetan ez dugu soluziorik ematen, zero-rrek asmatu beharko duzu nor den. Baina ez pentsa ariketa zuek erotzeko jartzen dugunik, ez noski. Besterik gabe, gure irakurle on adimena eta begia zorrozten lagundu nahi dugu, denon hobebeharrerekin. Ah, eta ez zaitetzexatu, hurrengo aleko «pertsonai ezkutua» zu izan zaitetzake eta.



Xaporen V. alean 1995. urteari eman genion gain begirada. VI. honetan berriz, 1996an gure herrian igarotakoak ekarriko ditugu orri hauek. Ttipi-ttapa aldizkariko Goizuetako kronikak laburtu ditugu eginkizun honetarako. Herriko Etxe-ari teiltatu berria emateko lana Zabala eta Goikoetxeak eginen zuela zioen urteko lehenengo ttipi-ttapak. 14,5 milioi pezetako aurrekontua zuen obrak. Euskal presoen dispersioaren kontrako mozioa ere onartu zuen Udalbatzak hilabetean. Alde horretatik behintzat ez dira gauzak asko aldatu hamar urte hauetan.

Iazko laburpenean eman genuen Udaletxeko artxiboan agertutako euskarazko ordenantza zaharren berrri. Ba, oraingoan esan behar dugu, testu hori Euskaltzaindiaren eskutik uztea erabaki zuela Herriko Etxeak. Erakunde horrek «Fontes Linguae Vasconum» aldizkaria argitaratu zuen gero. Iñoteak otsailaren 17tik 19ra ospatu ziren 1996an. Berrikuntza nagusia larunbata arratsaldean kaleratu zen 50 lagunekon konpartsa izan zen Izaskun Bakero zuelarik zuzendari. Etzakit taldeak jo zuen asteartean eta Udalak 130.000 pezetarekin subentzionatu zuen mozorroren taldea.

Otsailean baita ere parapente ikastaroa egin zen; intsumisioaren aldeko mugimenduarekin bat egin zuen Udalak, eta gaztetxean puntako rock kontzertua antolatu zen.

Martxoaren 24an kultur ekitaldi handi bat ospatuko zela esaten zuen hil horretako lehenengo ttipi-ttapak: Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala. Andres NARBARTÉ «Xalto»ren heriotzaren 25. urteurrena betetzen zen 1996an eta beraren omenez antolatu zen txapelketako final handia herrian.

Martxoko kiroleko berria pilotaren eskutik zetorren. 10 urteko Loiar-te-Apezetxea mutil kozkorrek Neguko txapelketaren finala galdu zuten Labriten Retegi-Arretxeri final aurrean aise irabazi ondoren.

Kirolekin jarraituz, aipagarria da Heather Anderson Kaliforniar neska



1996ko iñoteak.

gaztearen gidaritzapean herriko 20 neska saskibaloian jokatzen ari zirela azken hilabetetan.

Martxoarekin bukatzeko esan, finalaren aitzakian bertsolaritzari buruzko beste hainbat ekitaldi antolatu zirela, eta gainera, Martin Lujanbio Umore Onako presidente hautatua izan zela Xanti Bakeroren orde.

Apirilaren hasieran ere kirol berriak ziren nagusi, aipagarrienak, nola ez pilotarekin erlazionatuak. Asier Olaizolak profesionaletan jokatuko zuen, bi urtetarako kontratua sinatu baitzuen Alti enpresarekin. Apezetxea eta Almandozek berriz, Nafarroako klubaren arteko txapelketa eskuratu zuten Umore



Xabier Apezetxea eta Iban Loiar-te.



Herriko nesken saskibaloia taldea.

atzera begira

Onaren izenean. Txirrindularitzan bestalde, Euskal Herriko itzulia apirilaren 12an herritik igaroko zela iragartzen zuen ttipi-ttapak.

Maiatzean sinatu zuten Udalak eta Nafarroako Gobernuak Babes Zibileko komenioa. Ordurako hogeitaherriar ziren bolondresen zerrendan izena emandakoak. Umore Onaren areto futbol taldeak bestalde balantze positiboa egiten zuen bukatu berria zen denboraldiaz. Gipuzkoako III. mailan jokatzeko zuten Umore Onak, eta Udalak eta Elkartek berak subentzionatzen zuten.

Iazko Xapon Loitzate mendian ezarri beharreko haize erroten parkearen berri ematen bagenuen ere, handik urte betera Iruñaren ezezkoa etorri zela esan behar da aurten. «Paisai naturalen funtsezko baloreen galera» eta «Atlantiko erako sasi eta larreak hondatzeko arriskuak» argudiatzen zituen Nafarroako Gobernuak EHNri ezezkoa ematerakoan.

«Hiru urteko planean» 68 milioi pezetako lanak aurkeztu zituela zioen Udalak ekainean. Baserrietako pistak moldatzea, saneamendu sarea osatzea, eta zenbait kale zolaberri-

tzea agertzen ziren zerrendan besteak beste. Uztailaren 8an bestalde, C. Apezetxeak hartu zuen Goizueta-Hernani autobus linearen ardura C.Albari erreleboa eginez. Uztailean baita ere, hilaren 21ean, ireki zituen ateak Iskibiko kanpinak. Hirugarren mailakoa bazen ere, zerbitzu asko eskaintzen omen zituen.

Uda eta udazkenerako antolatutako kultur eskaintza zabalaren berri ematen zuen abuztuko lehenengo kronikak: kaleko hiru zine emanaldi, diaporama saioak, Gontzal Mendibil kantaria, eta abarrek osatzen zuten aipatutako egitaraua. Eta abuztuaren jakina, fiestak. 16an kontzertu erraldoia Gari, Deabruak Teilatueta, Txakun eta Exkixurekin. Orduan ere pilota partidak egunero jokatzeko ziren. 17an esate baterako izen handiko lau jubenilek parte hartzen zuten: Saralegi-Sukia, OLAIZOLA II-BARRIOLAren kontra. Seguru aski azkeneko bikote honek irabaziko zuen. Erramun Martikorenak ere kantatu zuen fiesta haietan herrian.

Irailen marrazki bizidunak egiteko prozesua erakutsi zen herrian eta Antigua auzoko pilota torneoaren finalak galdu zituzten Olaizola II-Barriolak alde batetik eta bi Apeze-

txeak bestetik. Depuradoraren proiektuari ere orduan eman zion Udalak aurre onarpena, eta Dani-Ainara eta Zabala anai-arrebak Nafarroako Trikitixa Txapelketaren finalean aritu ziren. Urrian «Mendi Babestua» deklaratu zuen Artikutza Donostiako Udalak. Musika Eskolan bestalde 45 ikasle hasi zuten ikasketurtea.

Azaroan jo eta ke ari ziren eliza konpontzen eta herritarrak esku zabal ari omen ziren horretarako dirua botatzen. Juantxo Apezetxeak berriz modalitate guztietako pilotari onenaren saria jaso zuen Espainiako Federazioak emanda. Omendu gehiago izan ziren azaroan, Patxi Iribarren eta Elena Oiartzabal saritu baitzituen Umore Onak dantza irakasleak izan zirelako hainbat urtetan.

Herriko emakumeak neguan sukaldetik ateratzea erabaki zutela esaten zuen urteko ttipi-ttaparen azkeneko kronikak. Zergatik zioen hori? Bi ikastaro ziren ondorengo asteetan burutu beharrekoak (esku-lanetakoa eta fandango eta arin-arinarena) eta 50 emakume ziren izena emandakoak.



1996ko abuztuaren herriko gazteak fiestetan txarangarekin.



txoko-sex

onttoak!!



Bizitza, geldiezina, zoragarria batzutan, txarxeagoa bestetan. Baina dena dela, zenbaitetan, kontu handiarekin hartu beharrekoa. Batez ere, «sexu segurua» deritzogun gaiarekin. Hau esatean, antikontzeptiboei buruz dihardugu, baina badira baita ere beste zenbait gauza. Kasurako onttoak. Ez gaizki pentsa. Ez dugu mendian topatzen diren onttoei buruz hitz egin behar. Baizik eta gure gorputzera gure baimenik gabe etortzen diren bitxito agoanta ezin horietaz. Goazen bada, bitxito horiei buruz hitz egitera.

Transmisio sexualeko gaixotasunik handienetakoa dugu onttoena. Ontto mota desberdinak daude, nahiz eta guk hemen ez aipatu. Normalean emakumeen gaixotasun bezala katalogatzen dugu, nahiz eta gizonezkoek ere izaten duten. Hala ere, gizonezkoek, ez dute ezer sentitzen onttoak dituztenean, ez azkurerik, ez molestiarik ere. Horregatik, emakumeak dira hori jasaten dutenak eta gaixotasuna tratatzera joaten direnak.

Onttoen transmisioa ez da beti sexu harremanengatik izaten. Bat-batean sor daiteke, defentsen jaiste batengatik, edo eta medikazio jakin batengatik. Baina baita harreman sexualak izateagatik ere; bai emakumeek gizonezkoiei, baita gizonezkoek emakumeei. Baina normalean, gizonezkoek onttoak transmititzen badituzte euren bikote lagunari, ez dira konturatzen, ez baitakite onttoak dituztela, ez baitute inolako sintomarik izaten. Emakumeek ordea, izaten dituzte sintomak, eta baginaren sarreran eta ezpainetan azkurea izatea da horietako bat, gorritasuna nabaritzen da ezpainetan, eta flujoaren handitzea ere bai. Hori tratamendu azkarra jarri ezean, azkurea handitzen joaten da, jasanezina bihurtu arte.

Onttoen gaixotasuna diagnostikatzeko, zitologia bat egitea nahikoa izaten da (ginekologoak erraztasun osoz egiten duen proba bat da). Bikote kidea ohikoa izanez gero, biek hartu beharreko tratamendua da. Normalean, krema bat besterik ematea baino

ez da izaten. Izan ere, biek egin ezean, berriro ere, gaixotasuna transmitituko baitiozue elkarri. Eta tratamendua egin bitartean, ez duzue sexu harremanak izateari utzi beharrik, nahikoa baita kondoitxo bat jartzea.

Beraz, prebentzioaren ikuspuntutik, hartu beharreko neurriak onttoen zabalkundeari stop esateko, errazak dira:

Onttoei, leku ilun, bero eta hezeetan egotea gustatzen zaie, beraz tenperatura epelak hasi bezain laster, kendu arropa, jarri ipurdi agerian, eta ez eman erraztasunik parasito horiei! Eta transmisioari dagokionez, beti aipatzen den moduan, eta behin eta berriro errepikatzen dugun moduan, kondoiaren efektu prebentiboari egin behar diogu aipamen. Bere zentzu antikontzeptiboaz gain, kondoiaren erabilpenak, haurdun ez gelditzen laguntzen dizu, eta molestia handia sortzen diguten ontto horiek ebitatzen lagunduko dizu. Goza ezazue sexuaz. Baina har itzazu neurriak: sexu segurua. Eta kondoa.





Telefonista Pakita Makazaga

Pakita Makazaga denak «Pakita Telefonista» edo «Pakita Sekundinona» bezala ezagutzen dugu. Garai baten herriko telefonista zen 79 urteko emakume honekin, elkarrizketa izan dugu eta guretzat berriak izan diren gauz asko ikasi ditugu. Batez ere gauzak denbora gutxin zenbat aldatu diren.

• Zergatik Pakita telefonistana?

Ni, 1947.urten telefonista hasi nitzan. Biño nik ordun behar bada oso gutxi telefonoa hartu nun. Garai hartan izena «telefonista» patu ziaten ta geroztik hala izandu nitzan ta oan ere bai.

• Zenbat urterekin hasi zinan lanen?

20 urte nittun. Ta nik ez nun ideikan e telefonoa zer tzen.

• Esplikatu al diguzu pixka bat zer nolakoa zen zuk egiten zenuen lana?

Goizuetan ordun telefono automatikoa zen. Probintziala zen ta ordun

izaten zun Biutak telefonoa. Handik Santiokoa zentralara, Aranora ta Goizutara poste beretikan tortzen zian dei guzik.

Eta Goizutan automatikoa zen. Goizutan automatikoa desagertu zen Telefonikak erosi zun denbon, probintziala. Probintziala deitzen zizin Goizuta Gipuzkon barrenen zelako, hau Hernanin sartzen baitzen.

Ordun patu zen Goizutan konferentzia.

Nik bittarten hemendikan Errenterira, Tolosa ez dakit sartzen zen biño gaiñekon hori denak automatiko nik oantxe bezala markatzen nittun biño 948 patu gabe. Gero san duan bezala Telefonikak erosi zunen Probintziala, ia konferentzia. Ordun lehenbiziko deittu behar nun Donostira, Donostik

deitzen zun Iruñera, Iruñak deitzen zun Lekunberrira, gainera hemen Helena Antonen Izeba ta ahizpak zauden telefonista, Lekunberrik deittu behar zun Leitzara ta Leitzak niri. Askotan Leitzak deitzeko, ba bi hiru ordu pasatzen zian. Nahi ta nahiez buelta osoa eman behar zun ta denak libre behar zuten. Donostitik Iruñera bai, generalen libre izaten zen. Hoik linea asko zittuzten biño Lekunberrik ta Leitzak ez. Nik izaten nittun Goizutako ta Aranoko lineak.

• Nahiko lan izango ziñun zenbakin ezta? Orain bezala listina erabiltzen al zen ordun.

Ez nun ordun inongo paperik beharrikan. Zenbaki guzik erki jakiten nittun.

Denbo hartan inork ez zittun jakiten numerok ta ordun niri saten ziaten «Pakita patuko al diazo honekin...». Pentsatu gero 1948. urten minak azaldu zianen handik e, handik itten zian dei guzik e nik patzen nittun, ezta bertakok e ez zizkiten numerok.



• Ta telefonoa non izaten zen ordun?

Lehenbiziko oan udaletxan bizitza den lekun izaten zen. Bere kabina ta guzi. Ta gero itxera karri ziaten, telefonikak erosi zun denbon.

• Ordun herritik norbaitek deittu behar zuten, nola itten zen?

Denak lehenbizi niri deittu behar ziaten. Baita kanpotik deitzen zutenen e, niri ailegatzan zian deita ta nik pasatzen nun behar zen lekura. Klabiak izaten zian parejaka ta nik konektatzen nittun.

Gainera bolada baten eondu nitzan bi linea nittula, Donostikin ta Iruñakin.

• Hemen herrin ordun zenbat jendek izaten zun telefonoa?

Ordun bastantek, ez naiz oroitzen zenbat zian seuro biño 20. Egia sateko ahaztua dakat. Biño oandikan gon dakat, Goizutako numeroa 7264 zen, automatikoa zen. Biño gero niri deitzen ziatenen ta «aizo pa ziazio holako numerokin» ta nik deitzen nun ba Donostira o Iruñera o beste lekun batera.

Ta kanpotik deitzen zunak berdin, deitzen zun telefonikara ta eskatzen zuten behartako numerokin patzera.

• Nolatan hasi ziñan lan hortan?

Bittarte hortan izaten zuten Aizkorbenak telefonoa. Hortako Goizuetako herrik atetzen zun telefonoa urtero subastan. Ta beti hartzen zuten Aizkorbenak. Ta gero eoten zen konekta-



Ez nun ordun inongo paperik beharrikan. Zenbaki guzik erki jakiten nittun. Denbo hartan inork ez zittun jakiten numerok ta ordun niri saten ziaten «Pakita patuko al diazo honekin...»

tua hortikan Lubinera. Lubinekok behar zuten denbon hairi patzen ziten. Ta gero Txipirinek hartu zun telefonoa. Pezpera arte ez zin iñori hitzik esan. Nere attak ta Txipirinek in zuten biek tratua eta pezperan san ziu-ten guri, bi ahizpari, urte berri eunen hasitzen giñala lanen. Ordun lehen san duana kabina goian tzen ta klaro bertan Aizkorbenak bizi zian eta be-

heko kabina in arte pasillun hantxe eondu giñan lanen.

• Geroztik telefonoa zuek izan al zenuten?

Bai, gero san duan bezala telefonikak erosi zun ta guk eukitzen gunun.

• Ze ordutegi izaten zenuten lane-ko?


Guk izaten giñun goizeko 8tatik arratseko 10tara. Ta arratseko 10tan pasatzen gunun Lubinera. Ta gabaz Lubinekok itten zian telefonon kargu.

• Telefonoaren erabilpenaren or- dainketa nola egiten zen?

Orduko prezioa izaten zen 5 min-utuko 7 xox. Ta jasotzen zen diru gu-zia, rekaudazioa, guri uzten ziun.

elkarrizketa

Den dena, nahi nun guzia ta gehio entzun nezaken.
Hartu giltza ireki ta iasta, nahi nuna aitzen al nun.
Biño ezin nuna in zen, deus kontatu, «sekreto profesional»
saten zina gorde behar nun.



Dena apuntu itten nun, zenbakia, zenbat denbo eon zen, ta eunero kontua maten nin Txipirineri.

Gero hemendik intako dei guzin kontua ailetzen zen.

Edozein moduz bertatik intako deiak momentun kobratzen zian ta

gainekok hilabeten. Ta deiak noski guk kobratzen ginittun. Gainera herrin bertan intako deiak gratis izaten zian. Ordun, bakar bakarrik kobratzen zian herritik kanpora itten zian deiak. Nik adibidez Donostira deittu behar banun berak gero esaten ziaten

«Goizueta tantos minutos tantos segundos».

Gero telefonikak hartu zunen ia hilabeteko diru horren bilketa berak itten zuten oan bezala.

• Orduan zuek zineten Txipirinen langilek ez?

Bai, halaxe. Ni jar nitzan momentun Txipirinen langile bezala hasi nitzan.

Biño gero Telefonikak hartu zun denbon Telefonikanak, noski.

• Ze lekutatik deitzen zuten honera?

Honera? Edozein lekutatik biño beti nahiko berta zauden lekutatik.

• Oroitzen al za leku berezin batetik deittua?

Deittua? Ez. Kuartelera asko deitzen zuten...

Biño telegramak ere nik hartzen nittun ta oroitzen naiz kuartelera ailegatzen zian telegramak numero bidez izaten ziala. Kodigo modura.

Gero herriko itxera re asko ailetzen zian ta baserritara re bai. Nik uste herri guziko baserrik jitu nittula telegramak eramanez. Telefonikak hartu zun denbon ez nengon behartua baserritara telegramak eramatera, biño nik eraman itten nittun, nere borondatez.

Oroitzen naiz telegrama bat Panamatik jaso, 1947.urten abuztuk 28n (urte hartan abuztuk 24 herrin inundaziok izandu zian). Oandik oroitzen naiz telegrama. Norbette hil ta bialitako telegrama zen ta hola zin «ante la imposibilidad de hacerlo personalmente reciba mi mas sentido pesame». Izena ez naiz oroitzen biño mezua bai.

• Telegramak nola kobratzen zian?

Hoiñ prezioa denana niri Donostik ematen zian.

elkarrizketa

• Ordun herriko informazio guzia zure eskutatik pasatzen zen, ez?

Den dena, nahi nun guzia ta gehio entzun nezaken. Hartu giltza ireki ta iasta, nahi nuna aitzen al nun. Biño ezin nuna in zen, deus kontatu, «sekreto profesional» saten zina gorde behar nun.

• Eta inguruko telefonistak ere eza-gutzen izango zenituen?

Bai, Lekunberrin izaten zian Hele-na Antonen izeba ta ahizpak, han li-ne-a asko izaten baizian. Ta gero izua-rrizko amistadea izandu nun Lizar-tzako itsukin. Leitzan berriz Mari ta Juan Kruz izaten zian...

• Noiz bukatu zen zure lana telefo-nista gisa?

Bueno ni telefonista izandu naiz 33 urtez, kontuk atere!

Azkeneko urtetan automatikoa zen ta hemen izaten zen lokutorioa, oan kabina deitzen zina.

• Lehen ederki kontatu diguzun be-zala dei bat egiteko zurekin egon behar zen, edo eta hona etorri behar zen dei bat egiteko. Orain aldiz ba-

Oango martxak inpresio haundia itten dit, telefonok arik eta gabe. Ni nola aitzen nitzan batera ta bestera linea eskatzen ta oan halakoik deus ez dela ikustera...

koitza bere telefonoa poltsikoan duela ibiltzen gara. Ze iruditzen zai-zu zuri?

Ui, niri ia hemengo martxa bukatu zenen arrunt raroa in zizian, hutsa haundia nabaitsu nun. Ordun jende asko ibiltzen baizen hemendik.

Oango martxak inpresio haundia itten dit, telefonok arik eta gabe. Ni nola aitzen nitzan batera ta bestera li-ne-a eskatzen ta oan halakoik deus ez dela ikustera...

• Zuk bai al duzu telefono mugiko-rrarik?

Ez, ez dut biño ez nuke esango ibil-ko ez nukarik.

• Eta bukatzeko kontatuko al digu-zu gogoan duzun anekdotaren bat.

Hasiera hartan jenderi oso raroa itten zizin lokutorioa. Zerbette eze-zauna baizen. Bazen jendea telefonoa alrebes hartzen zunik e. Biño bueno, behin gizon batek dei bat jaso zun eta esan ziaten ia mesedez gizon harrerri abistuko nin. Nik abisoa pasatu nin ta gizona lokutorion sartu da, lehenbizi-ko aldia izain zun han sartzen zela, ta seuroski telefonotik eoten zena re bai. Lokutorioa itxia izaten zen ordun, oango kabinak bezala, ezin zen deus aittu kanpotik, kortxuzko atekin ta hola izaten zen. Hala behintzat, sartu da lokutorion ta belaxe han esaten dit gizonak «Emakumea hemen ez da iñor mintzatzen». Ta han ikusten dut nik gizona deittu zinan izena ohika esanez, biño telefoik hartu gabe.



Trabuko

edo Berdabioaren ixtorioa



Berdabio baserriko bi ikuspegi.

A skotan ibili gara Trabukoren istorioaren atzean egitan zer gertatu zen jakin nahian. Aspaldiko kontuak dira, eta horrela koetan egia asmaziotik berextea zaila izaten da. Patziku Perurenak *Goizueta eta Aranoko hizkerak* liburuan kontatzen dizkigu han gertatutakoak ongi dokumentatuak (177-186 orrialdeetan), baina aurtengo Xapon orain gutxi argitaratutako liburu batetik topatutako azalpena idatzi dugu. Zuk ezagutzen duzuna diferentea bada (bertsok, adibidez, diferente xamarak dira, Mikel Laboari entzun dizkiogunetatik) edo bertso gehiago baldin badakizkizu, bidali lasai zure bertsioa. Hiru bide behintzat badituzu: Kultur Taldekoei eskura emanda, gure helbide elektronikoa erabiliz (goizuetakt@euska-lerria.org) edo udaletxera bidalita, Kultur Taldearen izenarekin. Izan ere, Xapo aldizkaria zuen parte hartzearekin osatu nahiko genuke.

Denan jakinduria, iritzi, bertso edo dena delakoarekin aldizkari aberatsago bat izanen baituzute hurrengo urtean!

Xabier Susperregiren «Oartzun haraneko kondairak» liburutik aterea

BERDABIO

Kondaira baten arabera, urrezko meategia dago gure bailaran Artikutza eta Goizuetako mugetan dagoen baserri inguruan. Herri kondaira hori gertaera historikoetan oinarritzen da. Izan ere, historikoki frogatu denez, Berdabiok Nafarroako Erreinu-ko txanponak faltsutu zituen. Herriak gordetako istorioan, ordea, Berdabio bat-batean hasi zen aberasten etxe ondoan zuen urrezko meazuloari esker.

Egun batean, Goizuetara bidali zuen semea ogia erostera. Okinari eman zion txanponak dir-dir egiten

zuen eta berri-berria zirudien. Okinak horrela esan zion hori ikustean:

*Hori da hori txanpon distiratsua!
Bai, aitak egin berri du –erantzun
zuen semeak.
Zure aitak egin duela?
Bai, bai.*

Okinak salatu eta atxilotu egin zuten Berdabio. Iruñera eramán eta bertako epaitegian epaitu ondoren, kartzelara bidali zuten. Gero, urkatua izan aurretik, urte bete pasa zuen kartzelan egunero bertso bat idatziz. Bertsoetan bere bizitzaren gorabeherak aipatu zituen.

Diotenez, oso bertso tristeak ziren eta inork ez zituen buruz ikasi nahi. Azkenean, ijito batek ikasi zituen eta plazan kantatzera ausartu zen. Bertsoak hain tristeak izaki, ijitoa plazan bertan hil omen zen bertsoak amaitu aurretik. Hona hemen guregana iritsi direnak:



Berdabioko zubia.

Nere andreak ekarri zuen
Aranaztikan dotea
Hobe zukean ikusi ez balu
Berdabioko atea,
Gaur etzukean hark edukiko
Dadukan pesadunbrea.

Berdabioko semea naiz ta
Adios auzo nobleak
Pena haundirik ez baitu utziko
Ni hemendikan joateak;
Negarra pranko egingo baitu
Bere emazte tristeak.

Nereak ez nau hainbeste oroitzen,
Baina ez naiz ni bakarra
Hazitzekoak han utzi ditut
Bi seme ta hiru alabak
Jaun Zerukoak adi dezala
Haien amaren negarra.

Nere andrea, zoaz estera
Ez didazula negarrik
Ume horiek goberna tisu
Ez izan nitaz kargurik
Haiek, gaixoak, hontaz aurrera
Ez dute izan aitarik.

Goizutan bada gizon gaizo bat,
Deitzen diote Trabuko;
Hitzak ederrak, bihotza faltso
Beinere etzazio faltako;
Egin dituen dilijentziak
Berari zaizka damuko.

Ongi bai ongi, oroitzen al haiz,
Zer egin huen Elaman?
Jarraikin onik izandu balu
() harek Lesakan
Gaur berak egon beharko zuen
Ni orain nagon atakan.

Martin Joxepe Aranaztarra
Zegoen gizon prestua
Diximuluan botatzen zuen
Aldian bere puntua
Aber lenago ote nekien
Moldetarian kontua.

Gaur den egunean badakigu Berdabiok txanponak egiteko urrea baino zilarra erabili zuela eta inguruko eliza eta baselizetatik lapurtutako tresneriatik eskuratzen zuela zilar hori. Berdabioren benetako izena Joseph Echegaray zen eta 1748. urtean sartu zuten kartzelan, faltsutzeak zirela-eta. Era berean, kartzelan denboraldi bat egin ondoren libre geratu zen; beraz, ez dirudi urkatu zutenik, herri kondairak dioen moduan.

Batzuen ustez, Berdabioren istoriak antzekotasun handia du «mila eta bat gau» liburuko istoriarekin. Izan ere, liburu horretan protagonista den Scherezadak egin duen bezalaxe Berdabiok ere egunero bertso bat idazten du bere bizitza luzatu nahian.

Jakina denez, Mila eta bat gau liburuko istorioak antzinako Pertsian kokatzen dira. Schariar sultanak emazteak gau batean desleial izan zitzaiola jakin zuen. Hura hiltzea agindu eta aurrerantzean gauero emazte desberdin batekin oheratzen zen. Goizaldean, berriz, emaztea hilarazten zuen.

Egun batean, Scherezadak, bisir baten alaba zenak, bere burua eskaini zuen sultanarekin ezkontzeko. Egunsentia baino ordubete lehenago ipuin bat kontatzeari ekin zion Scherezadek. Eguzkia irtetear zegoela, ipuina amaitu gabe zegoen eta sultanak ipuinaren amaiera ezagutzeko jakin-min izugarria zuenez, bizitza barkatu zion.

Horrela, egunsentia iristear zegoenean, ipuin bat kontatzen zuen Scherezadak gauero. Simbad, Aladino, Ali Baba eta guretzat oso ezagunak diren pertsonaiak agertzen ziren haren ipuinetan. Mila eta bat gau egin zituen horrela, bere bizitza ipuinei esker luzatuz.





erreportajea

Goizuetako bost Cowboy-ak

Txoperenatarren histori laburra


Marcial Lafuente Estefanía «Oesteko» gaietako nobelagileak txoperenatarren berri izan balu, berehala ekinen lioke lanari. Ederra eta berezia da bai Txoperena bost anaien historia. Zortzi senide ziren txoperenatarrak: artikulua honen protagonistak, aspaldi Gasteizen bizi den Manolo, Maria Jesús eta Pakito, azken hau delarik herrian bizi den bakarra. Aspaldi erorita dagoen Otxoki etxean jaioak denak, eta Franzisko Txoperena eta Juanita Altamiraren seme-alabak. Atta, Franzisko, Doneztebekoa zen jaiotzez eta Angel Loiarterentzat lan egiten zuen 45 ur-

terekin hil zen arte. Seme zaharrenak, Manolok, 19 urte zituen orduan, eta gazteena, Jose Ignazio, jaio berria zen. Handik urtetara ama berriz ezkondu zen eta beste seme bat ekarri zuen mundura, Ramon.

Atta hiltzeak asko larrituko zuen dudarik gabe Txoperena familiaren egoera ekonomikoa, baina ez zen arrazoi hori bakarra izan Otxokikoak Ameriketara eraman zituena. Arrunt mugituak ziren umetatik txoperenatarrak. Kozkortu ahalean abenturazale ere bihurtu ziren, eta barreneko korapiloa itsasoa gurutzatuz askatu zuten. Dionisio eta Javier Mariren la-

gunek gogoan dute oraindik zenbateko ilusio eta grinarekin ikusten zituzten biak larunbata arratsaldeetako «Sesión de tarde» telebisio espainoleko zine programako «Oesteko» pelikulak.

Miel Antontxok (55 urte) hartu zuen aurrena Ipar Amerikako bidea 17 urterekin. Eustaquio Lujanbioren etxean egiten zuen lan gazteak Behe Nafarroako Banka herriko Leon Jauregiren berri jakin zuenean. Jauregik milaka eta milaka ardi zituen Wyoming estatuan eta artzai euskaldunak nahi zituen. Ez zuen asko pentsatu beharrik izan Miel Antontxok. Honen



erreportajea

ondoren Jexux Mari joan zen soldaduxkatik etorri eta segituan. Dionisio mandazai zebilen 18 urterekin alde egin zuenean. Javier Marik berriz (45 urte) Asincon egiten zuen lana, baina mutila ez zen makina baten aurrean egunero 8 ordu igarotzeko jaioa. Beraz, hau ere joan egin zen. Handik gutxira anairik gazteena, Jose Ignazio (43) joan zen 17 urterekin, auzoko Benai etxeko Jose Ignazio Apezetxearekin batera.

Miel Antontxok egin zuen bezala, beste 4 anaiak ere artzai joan ziren Leon Jauregirengana, urteren buruan bakotzak bide ezberdinak hartu bazituen ere. Miel Antontxo, mendian 3-4 urte egindakoan, Kaliforniara etorri eta lorezain hasi zen lanean, eta gaur egun oraindik horretan aritzen da. Jexux Marik hamaika lan probatu omen zituen aurtengo ilbeltzean bihotzekoak jota hil zen arte. Dionixioren ibilbidea da ezagunena. Honek ere Kalifornian pasa zituen urterik gehienak eta behien eta ardien arrantxo baten jabe zen telefono mugikorrak iragarritz Ipar Amerika osoan ezagun



egin zenean. Euskal Herrian ere oihartzun handia izan zuen Dionixiori gertatutakoak. Joan den irailean hil zen 51 urterekin gaitz txar baten erruz. Bi ume utzi zituen munduko artzairik famosoenak, Dio eta Niko.

Javier Mari Kalifornian bizi da. Abeltzaintzara dedikatzen da, aspalitik ezkondu dago eta edozein ai-

tzakiarekin noiznahi etortzen da Goizuetara. Jose Ignazio berriz Mexikoko Tijuana bizi da Carmen bere andreakin eta eraikuntzan egiten du lan.

Hemen idatzi ditugunak axal-axaleko kontuak dira. Dionisiorena ipuinetan bakarrik gertatzen da, baina istori horri THE END-a Otxokiko multijator hark merezi baino askoz lehenago paratu zion destinoak. Jexux Mari zenaren bizitzak ere liburu potolo bat edo 3-4 orduko filma betetzeko haina materiala izanen zuen. Eta zer esan Javier Marirenak: Leon Jauregui nagusiarekin izandako gorabeherengatik Euskal Herrira etorri behar izan zuen garaiko kontuak, edo berriz Estatu Batuetara Mexikotik sartzeko izandako istiluak. Ikaragarria Rio Grandekoa Javier Mari!

Gure partetik ez gara gehiago luzatuko, besteak beste Xapoko orriak mugatuak direlako. Dena den, txoperenatarren bizitza sakon aztertu nahi duen idazleren bat baldin bada, aurkituko du zer idatzi. Ai, Marcial Lafuente Estefaniak txoperenatarren berri...!!!!





iritzia

Etxebizitza guztion eskubidea!

Euskal Herri osoan, sistema kapitalistaren ondorioz, etxebizitzaren arazoa geroz eta larriago bilakatzen ari da, gazteen eskuragarritasuna mugatzen dutelarik. Izan ere, azken hamar urte hauetan etxebizitzaren prezioak 14 aldiz garestitu dira, langileon soldatak 2.5eko gorakada izan duen bitartean. Honela, etxebizitza duin bat eskuratzeko ahalmen ekonomikoak mugatzen dizkigute. Hala nola, merkatu libreko m²-aren batz besteko prezioa 3 251 da, duela 10 urte baino %127.7 garestiago. Babes ofizialeko m²-arenak, 1 228 balio dituen bitartean, %85.2ko hazkunderekin. Prezio hauek, gurasoekiko edota banketxeekiko dependentzia sortzera behartzen gaituzte.

Gaur egun gazteok, batz best 21.713 irabazten dugu urteko eta horren %34a etxebizitza ordaintzera bideratuko bagenuke, 67.1 urte beharko genituzke etxebizitza bat eskuratzeko. Duela 20 urte, 2.5 urteetan egiten zena, alegia.

Etxebizitza bat erosteko 300.000 hipoteka eskatzeak, banketxeari 510.000 itzultzea suposatzen du, %170. Diru horren banaketa honela egiten delarik: banketxeek 219.300 beraientzat geratzen dituzte, %43

hain zuzen; lurzorua jabeak 209.100, %41; eta azkenik, materialaren eta eskulanaren gastuak asetzeko %16 soilik bideratzen da, 81.600. Honek guztiak, Euskal Herriko 18 eta 35 urte bitarteko gazteriaren %21 soilik, gurasoen etxetik kanpo bizitzea dakar.

Etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea daukagu eta eskubide honen mesedetan, batzuek poltsikoak betetzen dituzte, beharra negozio bilakatu. Espekulatuzaileak!!


• **Alderdi Politikoak:** hitzez arazoa konponduko dutela dioten arren, praktikan interes ekonomikoei men egiten diete. Zurikeriatan arazoa konponduko ez duten irtenbideak ematen dituzte, gazteoi iruzur eginaz.

• **Instituzioak:** logikarik gabeko erakuntzen bidez, diru iturri bilakatzen dute etxebizitza eskubidea, herriaren eta gazteriaren ongizatearen mesedei entzungor eginaz.

• **Inmobiliariak:** bitartekari lanaz, gazte izerdiaren kontura dirutza galanta biltzen dute. Eskubide trafikatuzaile dira.

• **Banketxeak eta Aurrezki kutxak:** kreditu gabe etxe bat lortu ahal duten pertsonak gutxi direnez, hauen lepotik izugarritzko irabaziak lortzen dituzte.

Erantzule zerrenda honen atzealdean, izen abizeneko enpresari zein politikariak daude. Hauek dira gure egoeraren errudun eta gure etxebizitza eskubidearen zantzaile.



■ Banketxeak % 43
■ Lurzorua % 41
□ Materialak % 16



Goizuetan jasaten dugun etxebizitzaren arazoa ere, azken urte hauetan nabarmen okertu da. Hori herriak sufritzen duen biztanleri jaitsierak adierazten du. Izan ere, ez baitira gutxi bertako etxe faltak behartuta, kanpora bizitzera joaten diren gazteak.

Egunerokotasunean, Euskal Herri osoan bezala, Goizuetako etxeen %29.3a hutsik dagoela jakinda, arazo honi konponbidea ematea ez litzateke, dirudiena baino zailagoa izanen. Gazteen beharrak asetzeko, nahikoak izango bailirateke



Aurreko guztia jakinda gure alternatiba argia da. Independentzia. Hau baita, arazoaren irtenbide erreal bakarra. Izan ere, oraingo politikari nahiz instituzioek ez dituzte gure eskubideak bermatuko, eta ezinbesteko deritzogu beste jendarte eredu bat borrokatu eta eraikitzea. Non Euskal Herriaren baliabideak herriaren eta gazteon mesedetan erabiliz soilik lortuko dugun gure poltsikoen lapurrak uxatzea.

Hala ere, gaur egungo errealitatea aldatuko duen eta gure proiektu poli-

tikoaren baitan kokatzen den alternatiba planteatzen dugu: Alokairu Soziala. Nahitaez bi ezaugarri nagusiok edukiko dituen.

• **Publikoa / Herritarra:** Erakunde publikoek gure oinarrizko beharrak bermatzearen betebeharra dutenez, etxebizitzaren gestioa hauen esku geldituko da. Herriaren esku, alegia.

Honela, kapitalismoaren eta sistema neoliberalaren oinarria den jabe go pribatuari aurre egingo genioke, eta gauzetaz gozatzeko jabe izatea beharrezkoa ez dela zabalduko genuke.

Eta honen aurrean zer? Nola exijitu zor digutena? Borrokaz soilik lortuko dugu gure oraina eta etorkizunaren jabe izatea. Borrokaz eta Antolakuntzaz soilik lortuko dugu gure oinarrizko eskubideak errespetatzea. Gazteon eskubideak ez daude salgai!!



Brasilgo errepublika




Amazonas erreka-zazpi besotako bat.

Azalera: 8,5 miloi km² (16 aldiz Iberiar Penintsula)

Populazioa: 175 miloi biztanle. Hirieran dago populazioaren gehiengoa eta hautarik, hau da, hirieran den jendearen erdiak fabeletan bizi dira. Hiri barruan dauden beste hiri txikiak bezala dira. Normalean fabelak dirudun auzoen inguruan sartuak dira. Fabeletako biztanleek dirudun hauentzat lan egiten dute eta beraien artean elkar bizitzarako tratu moduko bat izaten dute. Zuk lana ematen badidazu nik ez dizut ezer egingo modukoa.

Hizkuntza: Portugesa, Portuñol esaten dute baino Portugesa eta Erderan tarteko bat egiten dute Brasilgo mugetako herrialdeen influentziagatik. Amazonian bizi diren bertako indiarrek beraien hizkuntzetan komunikatzen dira.

Erligioa: Brasilgo gehiengoa Katolikoa da baino beste debozio batzuk ere gehituta: espiritismoa, Chaman erritak, .. Afrikatik ekarritako esklabuek ekarritako erritak ere praktikatzen dituzte.



Iguazu ur jauzia



Salvador de Bahíako emakume Bahíanak.

Brasilen arrazen nahasketa osoa ematen da. Brasilek arima beltza eta gorputza mestizoa du; urteetan zehar Afrikatik etorritako beltzak, bertako indioak eta europatik etorritakoen gatza pixka batek osatzen dute bertako populazioa.

Brasilen, bizia egunero bukatzeaz balezala disfrutatzen dute: cachaza (pattarra), dantza, «o Carnaval», capoeira, ilunabarrak hondartzan, ...

Hondartzak Brasilen beste inon ez bezela disfrutatzen dira: beti jendez beteta daude, futboleaz gehienak, surfeaz, ... gorputz dotoreak dituztenentzat leku paregabea da erakusteko eta oso sentsualki egiten dituzte mugimenduak nabarmentzeko.

Baino hemen inoiz ikusi ez genuen gauza bat ere ikusi genuen, jende heldua asko ikusten da hondartzetan eta gazteak bezalaxe deporte egiten. Futboleaz, laisterka, abdominalak egiten, ... eta gazteak bezalako gorputzekin gainera.

Zentzu guztietan Brasil potentzia bat da baino sufrimentuetako potentzia ere bada. Datu bat, emakume



Salvador de Bahíako Pelourinho auzoa.



Buzios bertakoen turismo lekuetako bat.



Lençois Marenhenses erreserba.



Ouro Pretoko ondare Portugesa.

asko eta askok astean behin «casa do proiekto» tik pasatzen dira prostituitzeko eta beraien seme-alabei janaria etxera eramateko. Oraingo gobernuak fabeletako jabegutza bertako biztanleei ematen ari da, eskolak egiten, ura fabeletara eramaten, badirudi gauzak konpondu nahi direla baino oraindik lan asko ta asko egiteko dago.

Dena den, bertako jendeari begiratu ez da horrelakorik nabaritzen, bertan bizipoza, musika, dantza, parranda ta alaitasuna igertzen da. Baina Brasilek horrez gain badauka beste gauza ikaragarri bat: bere NATURA!!!! Paraje zoragarriak daude ikusteko, oilo pikorra jartzeko modukoak, horiek bakarrik ikustera joatea ere pena merezi duela.

Iguazuko urjauziak, Amazonia, kostako hondartzak, Rio de Janeiro bera ere ikusgarria da, guk hemen Donostiko Kontxakin aluzinatzen du eta Rio de Janeiron bertan 38 hondartza daude eta hauetariko asko Donostiko badia baino ikusgarriagoak dira. Horrez gain itsasotik ateratzen diren mila metroko harmail batzu daude oraindik ederrago egiten dutena.

Brasilen barna bidaiatzea oso erraza da, oso aurreratua da garraioa. Autoak alokatzeko aukera ere badago leku askotan eta bideak onak dira orokorrean. Hegazkin zerbitzua oso ona da. Hemen ez bezalakoa eta Brasil den haundiarekin kontutan hartzekoa. Saltzen dituzte Airpass berezi batzu hiru, lau edo bost hegaldi egiteko Brasil barruan oso modu onean ateratzen direla eta distantzia luzeak egiteko oso ongi etortzen da.

Guk hilabete batean ezin dena ikusi eta leku gutxi batzuekin gelditu behar izan genuenez hauek aukeratu genituen: Iguazu, Pantanalgo erreserba, Chapada dos Guimaraes erreserba, Belem (Amazonas errekarren itsaroratzea ikusteko), Sao Luis, Lençois Marenhenses erreserba, Barreirinhas, Salvador de Bahía, Ouro Preto (Urre eta harri bitxien meategiak ikusteko), Buzios, Rio de Janeiro.

Dudatan ez gelditu. Joan. Brasil, «Salvador de Bahía», «Natal» eta turismo sexualaren topikoa baino gehiago da.

Izen-abizenak euskaratzea erraza eta laburra da Orain duzu hori aldatzeko aukera

Izen-abizenak euskaratzea erraza eta laburra da. Orain duzu hori aldatzeko aukera

Euskal izen-abizenak badituzu, baina agiri ofizialetan erdal grafian agertzen baldin badira, ORAIN duzu

hori aldatzeko aukera. Gaur egun egin beharrekoak oso errazak dira, eta denbora motzean egin daitezke erroldatuta zauden herriko Erregistro Zibilean, udaletxean bertan.

Izena edo abizena euskaratzeko eta

aldatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1.- Eskatzailearen erroldatze agiria (Erroldatua zauden herriko udaletxean eskatu)

2.- Eskatzailearen hitzez-hitzezko jaiotze agiria (herriko udalean edo Iruñeko Erregistro Zibilean eska dezakezu)

3.- Nortasun agiriaren fotokopia eta originala

Oharrak:

Aurreko dokumentuak 18 urtez gora koentzat dira.

Adingabeak abizena aldatzeko derigorrezkoa da gurasoekin bertaratzea eta famili-liburua aurkeztea.

Amak edo aitak abizena euskaratuz gero, adingabeko seme-alabena automatikoki aldatzen da..

Izena edo abizena aldatu nahi baduzu Iruñeko Erregistro Zibilera jo beharko duzu eta eskaera egin.

Kontsultarako teletonoak:

Leitzako Bake Epaitegia: 948 610 866 (Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00, asteakenetan ez daude).

Iruñeko Erregistro Zibila: 84 84 24 008

Gainerako herrietan erroldatuta zaudetenok udaletxera joan ohiko ordutegian.

Euskara Zerbitzua: 948 510 814



Zure izen-abizenak EUSKALDUNDU

Zure euskal abizenak euskal grafiara zuzendu nahi baduzu:

Cestau >> Zestau
Sagastibelza >> Sagastibeltza
Alduncín >> Alduntzin

Zure izena zuzendu edo euskaratu nahi baduzu:

María >> Miren
Iciar >> Itziar



ZURE TXANDA

Eneko Lekuona

30 urte



Gaur egun ikasten edo lanean zabil-tza?

Lanean nabil.

Ze lanbide duzu?

Irakaslea naiz.

Zuk aukeratu al duzu gaur egungo lanbi-dea? Gustora al

zaude bertan?

Bai. Bai eta arrunt kontentu. Bakoitzak duen lanaz disfrutatzen saiatu behar du. Bizia lu-zea da eta bizi kalitatea zaindu behar da.

Zer ari zara ikasten? Eta zergatik?

Momentu honetan psikomotrizitate ikasta-ro bat. Umeekin lanean aritzeko umeak ezagutu behar direlako.

Zure ikasketen ibilbideak izan al du etenik?

Bai, 18-19 urte inguruan.

Arrazoi esanguratsurik egon al zen ikasketa ibilbidea eteteko?

Bai. Dirua ikusi nuen parranda egiteko eta ikasteko gogorik ez.

Zergatik hasi zinen berriro ikasten?

Gurasoak egunero gainean nituelako eta andamioak eta ni ez ginelako ondo konpon-tzen. Gaur egun gurasoen orduko gomen-dioak eskertzen ditut.

Ze arrazoi edo irizpide izan zenituen ikaske-ta hauek aukeratzerakoan?

Behar bada nire familian irakasle aunitz da-goelako. Eta betidanik umeak gustatu zaiz-kidalako.

Urteetan atzera egingo bazenu, zure ikaske-ta edo lan ibilbidean zerbait aldatuko al ze-nuke?

Gustatuko zitzaidan behar den garaian gau-zak egitea. Horrela, ikasketak 27 urterekin amaitu beharrean 21ekin amaituko nituen. Nola ikusten duzu lan mundurako sarrera zu-re esperientzitik?

Gogoia duenak lana badu!

Zer esango zenioke institutoan dagoen gazte bati?

Garai hauek a tope disfrutatzeko baina bu-ruarekin.

inma Otxandorena

52 urte



Gaur egun ikasten edo lanean zabil-tza?

Lanean eta ikasten ari naiz.

Ze lanbide duzu?

Famili langile naiz.

Zuk aukeratu al duzu gaur egungo lanbi-dea? Gustora al

zaude bertan?

Bai, eta oso gustora nago.

Zer ari zara ikasten? Eta zergatik?

Gizarte Hezkuntza. Garai batean ez nuen au-kerarik izan eta ikastea gustoko dudalako.

Zure ikasketen ibilbideak izan al du etenik?

Bai, derrigorrezko hezkuntza amaitzean utzi nituen ikasketak.

Arrazoi esanguratsurik egon al zen ikasketa ibilbidea eteteko?

Lan munduan sartzeko aukera ona izan nuen, izan ere Leitzako papeleran lehenen-go egunetik lanpostu finkoa eskeini zidaten.

Zergatik hasi zinen berriro ikasten?

Behin familia aurrera aterata ondoren betida-nik ikasteko izan dudana gogoia hasetzeko. Gainera ikasteak, pertsona moduan aberas-tu egiten du.

Ze arrazoi edo irizpide izan zenituen ikaske-ta hauek aukeratzerakoan?

Nire gaur egungo lan inguruarekin oso lotu-ta daude.

Urteetan atzera egingo bazenu, zure ikaske-ta edo lan ibilbidean zerbait aldatuko al ze-nuke?

Dударик gabe gaur egun gaztetxoa izanda ikasten jarraituko nuke.

Nola ikusten duzu lan mundurako sarrera zure esperientzitik?

Nik lanerako gogoia izan dut eta ez zait lanik falta izan. Baina denok dakigu gaur egun lan finkoa lortzea oso zaila dela.

Zer esango zenioke institutoan dagoen gazte bati?

Ez etsirik hartzeko, eta ikasten jarraitzeko gustoko duen lanbidea lortzeko. Hau baita nire seme-alabei beti gogorazi diedana.